



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

---

# Soziolinguistika albistaria

---

**129. zenbakia**

2022ko irailak 30 – urriak 13

---

## Soziolinguistika Klusterreko albisteak

### **Imanol Larrea Galesen da Alan R. King katedrako sei asteko ikerketa-egonaldirako**

Sei astez egongo da Imanol Larrea Mendizabal, Soziolinguistika Klusterreko zuzendaria, Galesen Etxepare Institutuak eta University of Wales Trinity Saint Davidek sortu berri duten katedran, Galesko Unibertsitateko Centre for Advanced Welsh and Celtic Studies ikergunean.

### **Hizkuntzen erabilerarako babesguneen gaineko konferentzia egin du NPLD-k Cardiff-en**

Urriaren 7an, Galeseko Museo Nazionalan (Cardiff) Safe spaces to encourage language use konferentzia egin zuten Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sareko (NPLD) bazkideek eta Soziolinguistika Klusterrak bertan parte hartu zuen.

---

## Ikerketak

### **Bertsolaritza hizkuntzalaritzaren ikuspegitik aztertzeke ikerketa-lanak eta master-amaierako lanak saritzeko deialdia**

[Mintzola] Bertsolaritza eta hizkuntzalaritza ikergai gisa sustatzea da deialdi berri honen helburua. 2022an, 3.000 euro gordineko dirulaguntza bat esleituko da.

## "Txiokatu zure tesia 6 mezutan" lehiaketaren 6. edizioa azaroaren 22an egingo da

[unibertsitatea.net] #txiotesia6 lehiaketa 2019/2022 urte bitartean tesia aurkeztutakoei edo tesia orain egiten dabiltzan ikertzaileei dago zuzenduta. Sari bi banatuko dira: txiolari ulergarriena (500€) eta txiolari originalena (300€).

---

## Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

### "Hizkuntza eta Generoa" hitzaldia SENPEREN urriaren 13an

[UEU] Ikasturte berriko TARTARIKA zikloa martxan jarri dugu berriro. Urriak 13an Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel izango dira hizlariak, Senpereko Larraldea aretoan.

### Euskara eta kirolarekin lotutako 'Euskara: marka eta erronka' topaketak Gasteizen

[Euskararaba] Urriaren 20an Europa Jauregian Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Kirol Federazioen Elkarteak (AFDA) Marka eta Erronka topaketa antolatu dute hirugarren aldiz. Aurrekoetan bezala, euskara eta kirola uztartuko dituzte aurrerabideak identifikatzeko.

### 'Euskara ala ezkara kirolean?' jardunaldiko kronika eta bideoak eskuragarri

[Euskara ala ezkara] Zein da Elgoibarren kirolak duen dimentsioa eta eragina? Zergatik da garrantzitsua kirola euskaraz egitea? Kirola ere herrigintza al da? Zer ematen dio kirolak Elgoibarren ongizateari eta herrigintzari oro har?

### Eskuragarri "Enpresa euskaldunaren erronkak" jardunaldiko aurkezpenak

[Unibertsitatea.net] "Enpresa euskaldunaren erronkak" jardunaldia egin zen uztailaren 5ean Eibarren, Markeskoa Jauregian. 2 hitzalditan erabilitako aurkezpenak eskuragarri daude Otarrea dokumentu biltegian.

### The 2022 Soillse Conference: Rooting Minority Language Policy in the Speaker Community

[SOILLSE] The Soillse conference held in August 2022, advises Scottish Government, Bòrd na Gàidhlig, Local Authorities, development agencies and, importantly, individuals and families speaking and learning Gaelic to come together in a spirit of cooperation and renewal.

## Liburuak eta artikulu zientifikoak

### Euskara eta XXI. mendeko immigrazioa Euskal Herrian

[HABE Liburutegia] Estatuz kanpoko immigrazio fluxua da euskararen lurraldean mende hasiera honetan gertatu den fenomeno garrantzitsuenetako bat eta erronka esanguratsuak planteatu dizkio hainbat arlotan Euskal Herriari, bertan izan duen dimentsio handiarengatik.

### De la minoration à l'émancipation : itinéraires sociolinguistiques

[Carta] Ce livre, composé de plusieurs de ses articles parus dans des ouvrages collectifs ou des revues scientifiques internationales reconnues, témoigne tout autant du chemin parcouru sur la question que de celui qui demeure à faire.

### Place identity and authenticity in minority language revitalisation: Scottish Gaelic in Glasgow

[International Journal of Bilingualism] This paper aims to examine the extent to which they acquire aspects of a traditional dialect. Also, we investigate how young new speakers outside of a traditional community negotiate place identity and authenticity.

### Well-being and language: language as a well-being objective in Wales

[Current Issues in Language Planning] The purpose of this paper is to briefly assess the extent to which the Welsh NHS is in a position to facilitate the well-being objective of ensuring service users have an opportunity to utilise the Welsh language.

### Kaqchikel Maya and Spanish: Attitudes, domains, and acquisition

[International Journal of Bilingualism] The goals of this study are to examine attitudes toward Kaqchikel Maya and Spanish in domains of life in a village and a town in central Guatemala and to examine the influence of indigenous participants' attitudes toward Kaqchikel on Kaqchikel acquisition.

*Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean HABE Liburutegira ([liburutegi@habe.eus](mailto:liburutegi@habe.eus)), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.*

---

## Bestelako albisteak

### Irakasleen euskara maila kezka

[BERRIA] Hezkuntza Legearen aurreproiektuak jasotzen du irakasleak euskararen eta euskal kulturaren transmisioan trebatzeko prestakuntzak emango dituztela. Beraz, behar besteko maila al daukate? EHUren Hezkuntza Fakultateetako zenbait irakasle gaiarekin kezkatuta daude.

## Etxeko hizkuntza erabakitzen

[Hik Hasi] Etxe bateko hizkuntza zein izango den erabakitzeaz eta erabaki horri eusteko gakoez ariko gara ondorengo lerroetan, teoria eta bizipenak gurutzatuz.

## Lagun artean ospatu dugu Euskaltzaleen Topagunearen 25. urteurrena

[Topagunea] Mende laurdena beteta, 2022ko urriaren 7an ospatu dugu Euskaltzaleen Topagunearen 25. urteurrena berriz. Aspaldiko lagunak bildu eta federazioko kide, kolaboratzaile, lagun eta konplizeak batzeko aitzakia bikaina izan da Donostiako Aquariumean egin den ekitaldia.

## Emunek kideak eskertu eta dei egin du: «Euskarak lan mundua behar du, eta lan munduak euskara»

[NAIZ] 25. urteurreneko ekitaldia eta topaketa egin ditu Emun kooperatibak Arrasaten. «Gizarte euskaldun, justu eta iraunkorra eraikitzeko lanean dihardugu, horretarako bidelagun eta eragile gisa ikusten dugu gure burua, eta hori elkarlanean eta lankidetzan egin nahi izan dugu», azpimarratu dute.

## ADN Maya wins the 2022 Linguapax Award

[Linguapax] The ADN Maya collective, led by the rapper Pat Boy, promotes the rethinking of the use of Maya language and the renewal of the musical tradition in that language through artistic education of young Maya and Maya/Spanish speakers.



SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA  
Euskara biziberritzeko  
ikergunea

### Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

### Bazkide partaidea:

emun<sup>+</sup>  
Euskara eta  
berrikuntza soziala